


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



New Yorkeko misterioa

Bjorn Sortland,
Trond Bredeesen

IBAIZABAL

138 orrialde

9,50 euro

Sagar Handian ere betiko lapurrak

Oporretara doan bakoitzean, ezusteren bat bizi behar izaten du Daviden familiak. Hamaika urte ditu mutikoak New Yorkera abiatu denean. Bere ama artezalea, familientzako gidaliburuak idazten dituen aita, Thor anaia txikia eta Sisset arreba jasanezinarekin batera joan da David Sagar Handira. Oraingoan osaba William ere beraiekin abiatu da gainera. Norvegiako Polizia da osaba. Venezian, Luxoren eta Angkoren gertatu zitzaizen bezala, lapurrekin egingo dute topo. Gaizkile horiek ez dira ezezagunak beraientzat, kartzelan sar zitzaten lagundu behar izan baitzuten. Zergatik ibiliko dira lapur horiek beti beraien atzetik? Arrazoia, osaba Williamek azalduko die: polizia ezagun bat da gaizkile guztien burua. ■



Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián

Batzuen artean

DR. CAMINO INSTITUTUA

574 orrialde / 40 euro

Donostia suntsitu ondorengo berreraiketaren xehetasunak

Fermín Muñoz Echabegurenak *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* aldizkariaren azken alean argitaratutako *La reconstrucción de San Sebastián según las Actas de la Junta de Obras 1813-1843* artikuluan armada espainiarrari laguntzera etorritako indar ingeles eta portugaldarrek Donostia erre, arpilatu, emakumezkoak bortxatu eta herritar asko hil ondoren hiria berriz eraikitzeke egin zirenen berri zabala jaso du. César San José Seiglandek ere Donostiaren suntsiketa hura du hizpide, orduko gizatasun galera eta ohitura militarretan izandako aldaketak azpimarratuz. Gotzon Garmendia Amutxastegik berriz, 1786an jaio eta 1864an zendu zen Julián de Egañari esker forzuaztasun liberalak hartutako indarra du hizpide. ■

Izana esanetan, hitzak orbainetan

Horrela azaldu du Karmele Igartuak (Aretxabaleta, 1959) iaz Felipe Arrese saria eskuratzera eraman zuen olerki bildumako lagin batean zer den poesia: *Poesia da laburpena. Bizitzarena/ Pentsamendu oso bat zehatzu, zehatzia/ Hitz bakoitzak aukeratua behar du, / koma bakoitzak hausnartua. / Eta, hitz egiten duten isiluneak. —zer eta nola—. / Poesia da laburpena: izana esanetan/ eta batzuetan/ orbainak hitzetan.* Olerki bilduma hau zazpi ataletan banatua dago: Ernaltze hartatik, Laztanka, Isilak dio, Esku ahurrean, Arnasa bat, Zirrara, eta Libertatea. Egileak zer eta nola galderen erantzunak ditu bizi ardatz. Hala ere, ohartarazi du: *Ez dirikinat esango/ ez direnak;/ eta diren guztiak/ ezin esango dirikinat; eta bazakinat, / esan gabekoen artean/ izango ditun/ esan nahiko nizkinakeen/ nireenak, / eta ederrenak;/ horietxeke zitunak/ biretatz gordeak nituenak.* ■



Hitzak orbainetan

Karmele Igartua

EUSKALTZAINDIA,
BBK FUNDAZIOA

80 orrialde

5 euro

Oinarritzko Errenta posible?

Iazko *Realidad Social Vasca* saria irabazi zuen Gorka Moreno Márquezek Eusko Jaurlaritzak kalera- tu duen *Crisis y reconstrucción del Estado del Bienestar. Las posibilidades de la Renta Básica de Ciudadanía* lanarekin. Ongizatearen Gizarteak pobrezia eta bazterketari aurre egiteko indarra nola galdu duen xehetasunez aztertu du, hemen bezala beste hainbat lekutan martxan den gutxieneko errentetatik hasiz, AEBetan eta Erresuma Batuan gailentzen ari den *Workfare* sistemara iritsi arte; *Workfare* delakoak, hitz gutxitan, zera esan nahi du: Estatuaren aldetik diru laguntza eskuratu ahal izateko, aurretik lana derri- gor aurkitu beharra dagoela. Herritarraren Oinarritzko Errentaren historia, izan dituen ezbaia eta egunen batean indarrean egoteke izan ditzakeen aukerak ere ikertu ditu Gorka Morenok saio honetan. ■



Crisis y reconstrucción del Estado del Bienestar

Gorka Moreno
Márquez

EUSKO JAURLARITZA

198 orrialde



Egin bedi zure nahia

Aitor Arana

HIRIA

108 orrialde

12 euro

Eroei Gizarte Zerbitzuek ukatzen dieten zaintza

Antzerki lana da Aitor Aranaren *Egin bedi zure nahia*. Sendatzerik ez duen emakume eskizofreniko baten familiari sortzen zaion arazoa agertu digu. Urteak dira emakume hori ospitale-letik ospitalera dabilela. Berak etxera joan nahi du eta, leku faltagatik, ospitalekoek ere hara bidali nahi dute; baina etxeok ez datoz bat horrekin, ez behintzat hobera egin arte, krisia sortzen zaion bakoitzean botikak hartzeari utzi eta senide zaharrei joka hasten delako. Etxe horretan badute nahikoa lan bestela ere: ama alzheimerak jota dago, aita edariari emana, osaba ibili ezinik eta guztiak zaintzeko

hirurogeita hamar urteko izeba dute. Beraz, ez daude beste gurutze bat eramateko baldintzarik onenetan. ■

Bainatzea gustuko ez duen neskaren ezustea

Kamile, goazen bainatzera! da etxeko txikienei begira Ttarttalo argitaletxeak plazaratu duen Kamile bildumako azken alearen titulua. Neska pozik dabil jolasean, eta ez dauka amaren aginduari kasurik egiteko gogorik. Atzo ere bainatu zen, zertarako egin behar du berriro. Gainera, gehiegi garbitzea ez da ona: txiki-txiki geldituko da, Unairen jertsea bezala. Amak gogor egingo dio, ordea, eta orduan Kamile zikina zapi batekin kentzen hasiko da. Gero, kolonia bota, eta listo! Baina, ai, arkakusoan kontrako lozioa bota du! ■

Kamile

Aline de Pégigny

TARTTALO

18 orrialde / 4,95 euro



JUAN RAMON MAKUSO

«Inuzenteak gu, zoriona, egotekotan, esku artean daukaguna baita»

Zer da Oraina galdua?

Liburu honetan pentsamendu narratu bat zabaltzen saiatu naiz denboraren inguruan. Denbora Parmenidesen zentzuan hartuta: izatetik abiatzen naiz, izate hau, ni, erreal bakarra delarik. Orainean kokatua nago. Bestela ezinezkoa zait ni izatea. Eta orainak badu bere presentzia erreala. Nik orain, une eterno honetatik, leiho zabal bat dut nire aurrean, geltoki bat. Geltokia infinitua da. Bizitzak baldin badu oraina, hori heriotza da. Ez dut zabaldu nahi inongo nihilismorik, ez eta pentsamendu ezkor baten zertzeladarik. Instantea da izatearen erreinua, iragana ez da eta etorkizuna ere ez, instantearen erreinutik begirata behintzat.

Gizakiok paradoxa ikaragarri batekin bizi garela diozu.

Hala da. Geroari lehentasuna ematen diogu, benetakoa ordezkatzu. Gizakia hilkorra da, baina badirudi, geroari begirata, nolabaiteko jainkotiar hilezkortasun batekin amets egiten dugula. Zuk nire hitzak hartzen dituzu, “bihar” ARGIAN atera daitez. Ustez nire zorionerako. Inuzenteak gu, zoriona, egotekotan, esku artean daukaguna baino ez da. Eta hau, une hau da.

Askatasuna omen da gizakiaren beste patu bat...


Bai. Aukeran datzana. Ni hemen nago aukeratu dudalako. Ez aukeratzea, aukera delako. Ez da erraza esaten ari naizena. Gizakiaren ibilbidean, bidearen zati bat egin nago, bide horrek badu erakusteko asko. Beharbada hau nostalgia, oroimena da. Hau da nire orainetik daramadan gogoeta. Batzuetan astuna, ikusten dudalako orainean ez dudala lortzen arrastoak erakusten duena gainditzea.



Juan Ramon Makusoren solasaldi platonikoa

Literaturaren munduan bere poesien-
gatik da bereziki
ezaguna Juan Ramon Makuso. Bai-

na filosofia irakaslea ere bada. Eta bi zaletasun horiek uztartu ditu *Oraina galdua*. Solasaldi platonikoa saiakera poetiko-literario-filosofikoa. Liburuak lau atal ditu, gogoeta ugarirekin. Aurrenekoan, irakurleari gonbite poetikoa egiten dio gaian sartzeko. Hortik aurrera, berriz, filosofian murgiltzen da, Camilo Anxio lagunarekin e-postaz daukan solasaldian, hausnarketarako gonbitea eginez. *Gizakiaren benetako independentzia bera eta bere errealitatearekin bat egiten duenean gauzatzen da. Eta horretarako tresna ezin hobea daukagu, lengoia, eta honekin batera poesiaren erreinua*, adierazten du, jarraian azaltzeko hitzen bila gabiltzanean errealtatearen isla gauzatzeko, poesia eraikitzen dugula, norberarena, bere sentimenduen; eta orduan



Oraina galdua

Juan Ramon Makuso

EREIN

82 orrialde

15 euro

sentimenduak aldentzen zaizkigula, askatasun osoz. Askatasuna delako gizakiaren beste patu bat. Liburuaren amaieran oroimena berarentzat galdera dela dio, oroimenak ez duelako bat egiten bere orainarekin. Baina ahalegintzen da, joan den heriotatik, ez dena, orainean gauzaten, oraineko bizipenetan taxutzen. *Heriotzaraino Heriotza, nire bizitzaren oraina. Bera gabe ene burua ez baitut ulertzen.* ■

egileari galdezka